

LIBURUGINTZA

KARJVIEL'en bi idazlarien 1985'ko liburu barriak

AIT A ONAINDIA'REN LIBURUAK

Karmeldar au, antxifiatiko euskal idazlea, beti izan jakun oparoa. Emen, igazko 5 azken liburu mardo aitaturko doguz, aurreko urte azkeneko «Euskaldunak eta Osasuna» bazter itxita.

- 1- *Odisea*. Bilbao, Igarri'ren irarkolan. 337 orrialde. Homero, gerkar idazle ospe aundikoaren lana, euskeratuta. XXIV kantutan dago, arrezkeroko narrazifio-nobela guztien eredu izanik.
- 2.- *25 Antzerki labur*. Bilbo, Igarri. 167 orrialde. Antzerki bilduma aukerakoa. Gerra aurrekoen lanez orniduz geienbat. Laburrak, geien-geien ordu erdi bat irauten dabenak. Edozein eskola, ikastola ta batzar-tokitan errez antzertu leikezanak.
- 3.- *Nere baserria*. Bilbo, Igarri. Xabier Belaustegoitia'ren irudi ederrez apainduta. Poema au egilleak lau zatitan bereizten dausku: 1, *Udaberri* (15 olerki); 2, *Udaldia* (17 olerki); 3, *Udazken* (16); 4, *Negua* (15 olerki). 187 orrialde. Idazti atsegina bauseman kanta-kantari Ian egiteko.
- 4.- *Olerti 1984*. Donostia, Itxaropena. 181 orrialde. «Eusko-Ikaskuntza»ren «Hizkuntza eta Literatura» saillean dator. Lau zati ditu: 1) *Poesi jatorra*, (46 olerki); 2) *Itzulpenak* (16 olerki); 3) *Bertsolariak* (17 olerki), eta 4) *Iritziak* (iru Ian).
- 5-*Jainko Antzerkia*. Bilbo, Igarri. Dante Alighiere'ren *Commedia*, euskeraz. 367 orrialde. Poesi-liburu au munduko literatura guztietan dozu entzute zabaleko. Ezta edozelakoa, eta'merezi eban guk euskaldunok be berau euskeraz irakurtea.

AUGUSTIN ZUBIKARAI

1985 urtean ainbat bidar plazaratu da liburuen bitartez.

Guk ikusi doguzanetatik, orra batzuk:

- 1.- *Itxastarrak*. 230 orrialde. Eleberria (nobela). Itxas girokoa.
- 2.- *Ondarroa baserri giroan*. 192 orrialde. Ondarroa'ri erri legez edo eleiz-legez ikutu egiten dautsen baserrien agerpenak eta Ondarroa'k, mendeen mendetan, mendi eta mendiko igaliei buruz artutako asmo, erabagi eta aleginak. Juan Fernandez Egigure'en argazkiekin.
- 3.- *Peru eta Marigureak*. 225 orrialde. Ainbat sariketetan irabazitako bere lancn bilduma.
Egunotan irarkolan dauka, bear ba da onezkero kaleratua, beste nobela bat, gaurki girokoa:
- 4.- *Garratz eta gordin*, deituraz ezagutuko dana.
Beste aldetik, Ondarroa'ko Kultur Etxeko zuzendari lez, bere ardurapean urten dira igazko urtean.
- 5.- *Ondarroa*, aldizkaria. Ba dira lau urte ataraten dala.
- 6.- *Ondarru, Kantu, Otoi, Orru...* Ondarroa'ko ainbat kantu, musika ta guzti.
- 7- *Banaka... Binaka*. Antzerki Ian errezen sariketara bialdutako Bakar eta Alkar-izketa sarituekin.
Eta 1986'ko Urtarril onetan agertu da beste au:
Lore-kontu, Kontu-Lore. Au da, 1982'urtean Ondarroa'ko Lore Jokoetan saritutako bost kontakizun eta 1985'ko Kontakizun sanketan sarituak izan ziran beste zortzi Ian, beste ainbeste idazleenak.